


## BALOREZKO PROPOSAMENA

Atal honetan, gure Gas Gas enpresaren baliozko proposamenaz hitz egingo dugu, hau da, ahots bidez jasotako informazio bat momentuan itzultzen duen aparatuaz. Gure produktuaren ezaugarriak eta merkatuko konpetentziekiko ditugun desberdintasunak ere aipatuko ditugu.

Guk identifikatu dugun arazoa, batez ere, bidaiatzen ari diren pertsonen eta atzerriarren komunikatzeko zailtasuna da. Horregatik, haien beharra asetzeko produktu hau sortzea pentsatu dugu. Komunikazioa errazteko, beste itzultzaile batean esan nahi dutena idatzi beharrean, gure gailuarekin ahotsez esanez zuzenean itzulpena jasoko dute, denbora asko aurreztuz.

Produktu honek aurrerapen garrantzitsu bat eragin dezake gizartean, izan ere, hizkuntza desberdinak hitz egiten dituzten pertsonen arteko komunikazioa askoz ere errazagoa eta jariakorragoa izatea ahalbidetzen du, ahotsezko funtzionamendua dela eta.



Produktuaren neurriak 10cm altuera, 6cm zabalera eta 2cm lodiera dira. Gailuaren goiko ataleko botoi gorriak, gailua piztu edo itzaltzeko balio du. Horrez gain, aparatuak bi botoi ditu alde bakoitzean; eskubiko aldeko botoiek bolumena erregulatzeko balio dute: goikoa igotzeko eta behekoa jeisteko. Ezkerrekoek aldiz, audioa grabatzeko (gorria) eta itzulpena erreproduzitzeko (urdina). Gainera, erdian 4x5cm-ko neurriak eta irudia koloretan erreproduzitzen duen LED pantaila bat du. Pantailaren azpian hainbat botoi daude, hauekin, gailuaren sistema erabili dezakezu. Garrantzitsuena aparatuaren mugitzeko ditugun gezi horiak hauei esker hizkuntzen gainean jarri eta 1

zenbakia duen kolore moreko botoia sakatzuz, grabatu nahi duzuna zein hizkuntzatan dagoen aukeratu behar duzue, eta ondoren, 2 zenbakia duena sakatzuz, grabatutakoa zein hizkuntzatarara itzuli nahi duzun. Eskubi aldean kokatuta dagoen botoiak, aurretik aukeratutako bi hizkuntzak beraien artean era azkarrago batean aldatzeko balio du, hau da, 1 zenbakia duen botoiarekin gaztelera aukeratu baduzu eta 2 zenbakia duenarekin ingelesa aukeratu baduzu, botoi hau sakatzuz bien funtzioak aldatuko dira eta lehen grabatzeko erabiltzen ari zinen hizkuntza, itzultzeko erabiltzera pasako da. Aparatuaren gainean dagoen botoiak piztu eta itzaltzeko balioko du, bestalde ezkerreko alboan dagoen gorriak grabatzeko eta urdinak erreproduzitzeko balio dute, eskubian daudenak aldiz bolumena erregulatzeko. Gailuaren karkasa plastikoz egin dago, botoiak berriz, gomaz.

Gailua lehen aldiz pizterakoan dagokion botoia sakatuz, oinarrizko hizkuntza aukeratu behar da, horretarako, alfabetikoki ordenatuta dauden hizkuntza guztien artean bat aukeratu behar da. Hasiera batean, hizkuntzak gaztelera idatzita daude, baina kolorez agertzen diren banderak jartzea pentsatu dugu, edonork bere hizkuntza aukeratzeko zailtasunik ez edukitzeko. Hizkuntza aukeratzeko, gurutzeko eskubi eta ezkerreko geziak erabili daitezke goiko hizkia aldatzeko, horren arabera ageri diren hizkuntza eta banderak aldatu egingo dira. Ondoren goiko eta beheko geziak erabili behar dira hizkuntzen artean gora eta behera joateko. Behin aukeratu nahi den hizkuntzaren gainean, 1 zenbakia duen botoia sakatu behar da, orduan hizkuntza hori oinarrizkoa bihurtuko da.

Gailuak litio ioi motako bateria baten bidez funtzionatuko du. Honek, 2.500 zikloko iraupena du, hau da, bateria %0-tik %100-era 2.500 aldiz kargatu ahalko duzu. Bateria mota hau erabiltzea aukeratu dugu, etekin handiena atera ahal zaion bateria dela uste dugulako, izan ere, aldi batean erositako urte askoz erabili dezakezu berri bat erosi behar arte.



Hala ere, bezero bakoitzak aukeratu dezake gailua eguneratzea edo ez eta debaldekoa izango da, izan ere, hauetako bat dagoenean jakinarazpen bat helduko zaio eta beste edozer gauza egin aurretik onartu edo ez onartu beharko du.

Gure bezeroak gailuaren funtzionamendua, botoien erabilera eta eguneratzearen erabilera ulertu ahal izateko, produktua erostean gailuarekin batera doan jarraibide bat eskeiniko dugu. Hau, 5 hizkuntzatan azalduta egongo da: gaztelera, ingelera, frantsesa, italiara eta portugesa. Horrez gain, irudien bidez ere azalduta egongo da, bezeroak hauetako hizkuntza bat ez den beste bat hitz egiten badu gailua ulertu ahal izateko. Gainera, beste atal batean gurekin harremanetan jartzeko pare bat baliabide eskainiko ditugu.



Produktua saltzerako orduan, gailua eta jarraibideak 11x7x3cm-ko neurriak dituen kartoizko kaxa baten barnean joango dira.